

Prentsa oharra

Nota de prensa

Eraso matxisten aurkako Donostiako 2019ko kanpaina



“BAIetzik gabe EZETZA DA!”
“Si no hay SÍ ¡ES NO!”

Donostiako Udalak kanpaina bat prestatu du festa egunetan zoritxarrez gehiago izan ohi diren eraso matxistei aurrea hartzeko eta aurre egiteko.

Hiriko alkate Eneko Goiak aurkeztu du kanpaina, Berdintasun eta Solidariotasun arloko zinegotzi Duñike Agirrezabalagarekin batera, eta mezu hau azpimarratu da berriro: “Baietzik gabe Ezetza da! Si no hay sí ¡es No!”. Eneko Goiak aipatu du "penagarria izan arren, honelako kanpainak beharrezkoak dira oraindik", eta, beraz, azaldu du Udalak "behar den guztietan" errepikatuko duela "sentsibilizazio eta kontzientziazio lanarekin jarraitzeko".

"Iaz, Aste Nagusian hainbat salaketa jarri ziren abusu eta erasoengatik; horregatik, aurten mezu hau errepikatuko dugu: Baietzik gabe ezetza da. Horrek oso argi egon behar du", adierazi du.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Goiak gizarte osoari egin dio eskaera, "baina bereziki gizonei, eragile aktibo izan behar dugulako ekintza mota horiek gerta ez daitezzen ez jaietan ez beste edozein unetan. Gure emakume lagunak defendatu behar ditugu, haiek ere askatasun berbera izan dezaten eta jaietz normaltasun osoz goza dezaten. Ezin da matxismorako lekurik egon".

Kanpaina Donostiako Udaleko Berdintasun Departamenduak egin du eta iazkoaren ildo beretik egin da. "Adostasun esplizituaren gaian eragiteko oro har gizartearen eta bereziki emakumeen eskaerari erantzun nahi diogu, 2016ko San Fermin jaietan Iruñean gertatutako talde bortxaketaren sententziaren ondorioetako bati", adierazi du Duñike Agirrezabalagak.

Berdintasun politiken ildo estrategikoetako bat indarkeria matxistaren prebentzioa da, arreta hobetzearekin batera. Gainera, emakume biktimei arreta eskaintzeko baliabideak hobetu, puntu kritikoak kendu eta prebentzioan eraginkorrakoak diren kanpaina garatu nahi dira, neskak eta emakumeak ahalduntzearen bitartez.

Berdintasun zinegotzi Duñike Agirrezabalagak hau aipatu du: "indarkeria matxista emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren ondorio larrienetako bat da. Egia da alderdi batzuetan, hala nola aukera berdintasunean, aurrera egin dugula, baina emakumeen aurkako indarkeria, jazarpen sexista eta sexu erasoak botere desberdintasunen ondorio dira, gizartearen zati batean irauten duen sexu bortxaketaren nolabaiteko kulturarena, eta azken hori agerian geratzen da jai uneetan eta inguruneetan".

Indarkeria matxista ezabatzeko hainbat angelutatik jardun behar da: erakundeek prebentzioa egitea gizarte eta hezkuntza eragileekin lankidetzan eta gizarte inplikatzeara eraso eta jarrera sexisten aurka. Aurten, prebentzio kanpaina Karmengo jaietan hasiko da, asteburu honetan bertan, eta Eguberriak arte iraungo du, arreta berezia jarrita Aste Nagusian eta Euskal Jaietan.

“BAietzik gabe EZETZA DA!” “Si no hay SÍ ¡ES NO!”

>> Hiri osoko postontzietan jardunbide protokoloa banatuko da, hiri osoko zerbitzu publikoen laburpenarekin. Liburuxkak urte osorako informazio erabilgarria du. Asmoa da jarduteko modua erraztea erasorik edo bortxaketa ahaleginik ikusiz gero. Zenbaitetan, horrelako ekintzaren baten lekuko izan gaitzke, eta ez dakigu nola jardun dezakegun. Liburuxkaren helburua da bizilagunei tresnak ematea, nola jardun behar den jakin dezaten.

>>>Pankarta bat jarriko da udaletxean Aste Nagusian.

Prentsa oharra

Nota de prensa

FESTAK GUZTIONIZAKO SEGURUAK NINGUNA AGRESIÓN CONTRA LAS MUJERES

- Arreta berezia jarriko da gazteengan, prebentziorako bitarteko gisa; xedea da gazteekin erlazio eredu berriak eraikitzea, eta horietan errespetua eta berdintasuna oinarritzko zutabeak izatea. Liburuxka espezifikokoak banatuko dira erasoak eta tratu txarren erlazioak saihesteko gomendioekin. Mutilei eraso matxisten aurka jarrera aktiboa izateko eskatuko zaie, haiek "lagundu" egin baitezakete eraso sotilenak gelditzen. Materiala osatzeko, txapak, tatuajeak eta eskumuturrekoak ere izango dira. Materiala berdintasun, autodefentsa eta indarkeriaren prebentzioaren gaietan espezializatutako hezitzaileek banatuko dute.
- *Road show* edo informazio puntu bat jarriko da hainbat puntutan udan, Karmengo jaietarako, Jazzaldirako, Euskal Jaietarako eta estropadetarako, besteak beste.

Karmengo jaiak: 12an eta 13an, 20:00-24:00 artean, Kofradiaren aurrean.

Groseko jaiak: 19an eta 20an, 20:00-24:00 artean, Txofreko aparkalekuaren ondoan.

Jazzaldia: egunero, 20:00-22:00 artean, Zurriolako pasealekuan.

Abuztuko larunbatak: 18:00-22:00 artean, Boulevardean.

Porrontxo Jaiak: irailaren 13an eta 14an, 20:00-24:00 artean, Egian.

Aste Nagusirako eta Euskal Jaietarako informazio puntua jartzeari buruzko informazioa bere garaian emango da.



>> Ostalarien eta taxi zerbitzuen sektoreekin lankidetzan, pegatinak eta ezpainzapiak banatuko dira kanpainaren lemarekin eta jardunbide protokoloarekin, besteak beste.

Prensa oharra

Nota de prensa



DBusen pantailetan kanpainaren publizitatea jarriko da, arreta eskaintzeko telefono zenbakiekin.

Sare sozialak kanpainaren isla izango dira. Traol hauek erabiliko dira: #ezezetzda #niksinistendizut #noesno #yositecreo.

Aste Nagusiari begira aurkezpen espezifikoa egingo den arren, adierazi behar da Berdintasun Departamentuak hertsiki lan egin duela Donostia Festak elkartarekin, jai eremu guztietan eraso sexisten aurkako mezua argi gera dadin. Jai egitarauan nahiz aplikazioetan eraso kasuen aurrean arreta eskaintzeko baliabideei buruzko informazioa emango da.

Kanpainaren informazioa web orrian ikus daiteke.

www.ezezetzda.eus